

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

2023ko urtarrilaren 17ko jakinarazpenaren iragarkia, udalerriko biztanleen erroldan behar ez bezala inskribatzeagatik ofizioz baja emateko espedientea hasteko prozeduran

Alkatetzaren urtarrilaren 11ko 2023/13 Dekretuaren bitartez, erabaki zen espedientea hastea behar ez bezalako inskripzioagatik baja emateko udalerriko biztanleen erroldan 39495378P NAN zenbakiarekin erroldatuta dagoen pertsonari, udalerrian benetan bizi izan gabe erroldatu baitzen (Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Arautegia, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsia, 54. artikulua).

Bizilekuan banakako jakinarazpena egiten saiatuta ezin gauzatu izan denez, urriaren 1eko 39/2015 Legean (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) ezarritakoaren arabera, ediktu baten bidez egiten da, zeinaren bitartez jakinarazten baitzaio 15 eguneko epea duela udalerrri honetako biztanleen erroldan baja ematearekin ados dagoen ala ez jakinarazteko. Ados ez egotekotan, udalerrri honetan bizi dela egiaztatzeko egokitzat jotzen dituen alegazioak, agiriak eta justifikazioak aurkez ditzake.

Aurreikusitako epea igarota, eta Erroldatze Kontseiluak baieztatu txostena eman ondoren, baja emango zaio erroldan eta hauteskunde zentsuan.

Erdoña, 2023ko urtarrilaren 17a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO